

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2021eko OTSAILAREN 25ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2021eko otsailaren 25ean, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira eginiko bilkura honetan.

#### ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Mireia Ruiz Delgado  
Jesus Maria Tejada Cantero  
Maialen Alonso Labandibar


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
  - **2021eko urtarrilaren 28an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 28 de enero de 2021.**
  - **2021eko otsailaren 5ean egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 5 de febrero de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Tolosaldea Garantzen-i 2021 urteko ekarpena onestea, hala bada/ Aprobación de la aportación económica a Tolosaldea Garatzen, correspondiente al ejercicio 2021.**
- 5. Erroitz baltzu mugatuari 2020 urteari dagokion ekarpenaren kitapena onestea, hala bada/ Aprobación de la liquidación presentada por “Erroitz baltzu mugatua” de la ayuda económica concedida en el ejercicio 2020.**
- 6. Tolosaldeko Atari-aren 2020 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a al ejercicio 2020 de “Tolosaldeko Ataria”.**



## LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

7. **NISAE: Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak Estatuko Administrazio orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzeta-hitzarmenekiko atxikimendu parotokoloaren onespena, hala bada/NISAE: Aprobación, en su caso, del Convenio de Colaboración de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco con la Administración General del Estado para la concesión recíproca de soluciones básicas de administración electrónica, suscrito el 24 de marzo de 2017 y 5 de diciembre de 2018 con la Diputación Foral de Gipuzkoa.**
8. **Larraulgo ekomuseoaren dinamizazioa aurrera eramateko zerbitzuaren esleipena, hala bada/ Adjudicación del servicio de dinamización del ecomuseo de Larraul .**
9. **Larraulgo kultura ekimenen dinamizazioa Aurrera eramateko zerbitzuaren esleipena, hala bada/ Adjudicación del servicio de dinamización de las actividades culturales de Larraul.**
10. **Ekonomiaren garapen, jasangarritasun eta ingurumeneko sailburuaren, 2020ko abenduaren 22ko agindua, zeinaren bidez arautzen baitira, 2021 ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa garapeneko programaren esparruan onartu zen Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzaren babesean, diru-laguntza eskaera egitea.**
11. **Tokiko energia komunitatea garatzeko zerbitzuen esleipena, hala bada/Adjudicación de los servicios para el desarrollo de una comunidad energética local.**
12. **Beste batzuk/Otros.**
13. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**
  - 11.3. **2021eko martxoaren 8a dela eta adierazpen instituzionalaren onespena/ Aprobación de la declaración institucional con motivo del 8 de marzo de 2021**

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2021 urteko urtarrilaren 28an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.
- ▣ 2021 urteko otsailaren 5ean egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


### **BIGARRENGO PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 8/2021etik 22/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ICE	56,77
EZEIZA	287,98
GILBE	49,50
MONTTE	831,27
ASOCIACION CULTURAL ARIMAKTORE	297,00
KAXKAGOR KULTUR ELKARTEA	275,00
MELLIFERA	1.699,20
SANIPLAST	184,02
MAPFRE	474,92
CORREOS	5,03
IZENPE	56,76
UR AGENTZIA	33,96
UR AGENTZIA	6,12
MAQUELSA	9,34
ZU ETA BOK	1.294,82
EUDEL	300,51
CALPARSORO INDUSTRIAL	117,85
DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	124,07
CONTENEDORES SARASOLA	124,39
KIROLZER	22,85
DIONISIO ORMAZABAL	89,78
BABESA SUZAI	519,85
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	157,42
GUREAK	0,54
EBA ERKIZIA	664,51
OSK	121,00
ASTEASUKO UDALA	283,06
BASAJAUN LIBURUDENDA	13,30
IBERDROLA	74,91
IBERDROLA	228,31
IBERDROLA	305,04
IBERDROLA	33,78
IBERDROLA	177,34



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

NORTEGAS	603,73
NORTEGAS	143,75
TELEFONICA	182,11
TELEFONICA	97,41

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **9.947,20** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARRENGO PUNTUA**

#### **TOLOSALDEA GARANTZENI 2021 URTEKO EKARPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2020ko abenduak 2ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2021 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.850,00 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2021 urteko ekarpena onestea, guztia, 4.850,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 2.425,00 eurotako diru kopurua.


BIGARRENA: 4.850,00 eurotako gastua onestea, ordainketak 2021ko udal aurrekontuetako 422.430.00.01 kontu sailaren kargura egingo direlarik.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **ERROITZ BALTZU MUGATUARI 2020 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik, Erroitiz baltzu mugatuari 2020. urtean 750,00 eurotako diru-laguntza eman zitzaioa, Aiurri, Beterri-hamaboskaria argitaratzen laguntzeko.

Ikusirik, Erroitiz baltzu mugatuak, Aiurri, beterrri-hamaboskariko 2020 urtean izan dituzten gastuen zuritzea aurkeztu duela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Erroitz baltzu mugatuak aurkezturiko, Aiurri, beterri hamaboskariko gastuen kitapenaren onespina.

### **SEIGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO ATARIA-REN 2020 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2020 urteko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2020 ekitaldiko memoria gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **NISAE: ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusita, Larraulgo Udalak interesa duela administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:

▣ Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.

▣ Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Ikusita Larraulgo Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartu nahi duela, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: NISAE: Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak estatuko administrazio orokorrarekin 2017ko martxoaren 24ean eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzahitzarmenekiko atxikimendu protokoloa onestea.

BIGARRENA: Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea dagokion hitzarmena sinatzeko.


### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO EKOMUSEOREN DINAMIZAZIOA AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udalak, beharrezkoa ikusten du Larraulgo ondare material-inmaterialaren dinamizazioa, hau da Larraulgo Ekomuseoren dinamizazioa martxan jartzea, momentu honetan itxita dago eta berriro funtzionatzen hasteko nahia dagoelarik.

Aipaturiko zerbitzua martxan jartzeko hiru aurrekontu eskatu dira: ARRATE ITURBE REKONDO, ERREZ, KOOP. ELK.TXIKIA ETA AITOR LARRAÑAGA ARTECHE-ri.

Ikusita Larraulgo Udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik zerbitzu hau bere kabuz eramateko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

### *Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*


*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ARRATE ITURBE REKONDO andreari, urte betez, Larraulgo Ondare material-inmaterialaren dinamizazioa aurrera eramateko zerbitzuaren kontratua esleitzea 8.380,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.227.333.00.01 kontu sailen kontura “Museoaren kudeaketa” .

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arrate Iturbe Rekondo, Errez, koop. Elk. Txikia eta Aitor Larrañaga Arteche-ri ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO KULTURA EKIMENEN DINAMIZAZIOA AURRERA ERAMATEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udalak, beharrezkoa ikusten du Larraulgo Kultura ekimenen dinamizazioa aurrera eramatea.

Aipaturiko zerbitzua martxan jartzeko hiru aurrekontu eskatu dira: ARRATE ITURBE REKONDO, ERREZ, KOOP. ELK.TXIKIA ETA AITOR LARRAÑAGA ARTECHE-ri.

Ikusita Larraulgo Udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik zerbitzu hau bere kabuz aurrera eramateko.


Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al*





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ARRATE ITURBE REKONDO andreari, urte betez, Larraulgo Kultura ekimeneen dinamizazioa aurrera eramateko zerbitzuaren kontratua esleitzea 10.758,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.227.332.10.07 kontu sailen kontura “Azterketa eta aholkularitza zerbitzua: Kultura, kirolak, jaiak.....” .

BIGARRENA: Erabaki honen berri Arrate Iturbe Rekondo, Errez, koop. Elk. Txikia eta Aitor Larrañaga Arteche-ri ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

**EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUAREN, 2020KO ABENDUAREN 22KO AGINDUA, ZEINAREN**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **BIDEZ ARAUTZEN BAITIRA, 2021 EKITALDIRAKO, 2015-2020 ALDIRAKO EAEKO LANDA GARAPENEN PROGRAMAREN ESPARRUAN ONARTU ZEN LEADER EREMUKO LANDA-INGURUKO UDALERRIEN EKONOMIA SUSTATU, GARATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZAREN BABESEAN, DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA**

Ikusirik 2020ko abenduaren 22ko agindua, Ekonomiaren Garapen, jasangarritasun eta ingurumeneko sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2021 ekitaldirako.

Ikusirik Larraulgo Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, "Larraulgo pilotalekuaren egokitzea" izeneko lanak aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- "Larraulgo pilotalekuaren egokitzea"-rako egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2020ko abenduaren 22ko aginduaren babesean, non, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten den 2021 urterako.

BIGARRENA.- "Larraulgo pilotalekuaren egokitzea"-ren lanak aurrera eramateko onespena ematea.


#### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

#### **TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA GARATZEKO ZERBITZUEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udalak, beharrezkoa ikusten du Larraulgo herrian Tokiko energia komunitatea garatzeko zerbitzua martxan jartzea.

Aipaturiko zerbitzua martxan jartzeko aurrekontu bat eskatu da: EDINOR enpresari hain zuzen.

Ikusita Larraulgo Udalak ez dituela baliabide material eta pertsonalik zerbitzu hau bere kabuz aurrera eramateko.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

### *Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*


*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: EDINOR enpresari, Larraulgo herrian, tokiko energia komunitatea garatzeko zerbitzua aurrera eramateko kontratua esleitzea 4.800,00€ (BEZa kanpo), 1.0000.226.920.00.01 kontu sailen kontura "Aholkularitza" .

BIGARRENA: Erabaki honen berri EDINOR enpresari ematea.

### **HAMABIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

### **HAMAHIRUGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**


### **13.1.2021EKO MARTXOAK 8A DELA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA**

Ikusirik, EUDEL-ek aurkezturiko 2021eko martxoak 8a dela eta adierazpen instituzionala, non ondorengo dioen:

### **"ZAINZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean**

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

elikadura...) bai etheen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakarzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurriz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratu gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanaz gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- **Analisia** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaugarrienen egoerari eta beharriaz buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**.
- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbatean.
- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.
- **Udalen Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten **erantzunkidetasuna**.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
- Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesa ematea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eudel-ek aurkezturiko “Martxoaren 8a dela eta adierazpen instituzionala: Zaintza berdintasunean. Emakumeen egiteko pandemian eta zaintzaren krisi globalean”, adierazpen instituzionala bere osotasunean onestea.

*Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*